

2000. urteko apokalipsi informatikorantz



Luis Elizondo*


Bi urte barru, urtea adierazteko azkeneko 2 digituak bakarrik erabiltzen dituzten software-programek arazo larriak sortuko dituzte nonahi. Munduko erloju guztiek 2000. urterantz garamatzate erremedio-rik gabe, segundoz segundo, atse-denik hartu gabe. Baten batek denbora-makina asmatzen ez duen bitartean behinik behin, ez dago atzera egiterik. Gauzak honela, zer gertatuko da munduko sistema informatikoetan 2000. urtea eta gero? Kaosa? Hondamendia? Zein da munduko arduradun informatiko guztiak kezkatzen dituen kontu hori? Adibidetxo batekin ulertuko dugu.

programa informatikoak zuzendu ez baditu, zure bizitzan aurreztutako diru guztia galtzeko zorian egongo zara, 00ko urtarrilaren 1etik 99ko abenduaren 31ra arte iraun duen deiaren faktura jasoko baituzu; hau da, 99 urteko probintziarteko deia, alajaina!

Antzeko arazo eta akatsak edozein alorretan suertatuko dira egun horretatik aurrera, mendebaldeko mundua 1999tik 2000ra pasatuko den bitartean, programa informatiko asko eta asko 99tik 00ra atzeratuko baita. Zergatik, ordea? Arrazoa oso sinplea da. 1960 eta 1970. hamarkadetan, konputagailu garestiegiengien memoria preziatua aurreztegatik, programatzaileek

luak, hain zuzen ere. Adibidez, zenbat urte ditut?

Ni 1965eko maiatzaren 21ean jaiotzen. Konputagailu bati zenbat urte ditudan galdetuz gero, gaurko data kontuan hartu ondoren kenketa egingo du: $97-65=32$. Baina 2000. urtean ere eragiketa bera egingo luke, hau da, $00-65$, eta orduan -65 urte ditudala erabakiko luke. Erabat zentzugabea izanik, honelako kalkuluek akatsak eta gaizkiulertuak sortaraziko dituzte zalantzarik gabe. Eta ez bakarrik pertsonen adina dela eta; denboran oinarrituta dagoen informazio guztia ere hankaz gora geratuko da. Den-dena. Noiz amaituko dira kreditu-txartel horien epeak? Noiz



interesengatik? Eta zer kobratuko maileguengatik? Galdera hauek guztiak denboran oinarrituta daude eta, konputagailuak ez badaki zein den gaurko benetako data, ezin izango du era egokian erantzun.

Eta datorkigun aldrebeskeriaren arrazoia hain sinplea baldin bada, zergatik ez zuten hau guztia aurreikusitua duela 20 urte? Gauza jakina baitzen egunen batean 2000. urtea iritsiko zela, ezta? Bai, baina konputagailuak enpresa-munduan sartzen hasi zirenean, 1960 eta 1970. hamarkadetan, garesti baino garestiagoak ziren. Eta prezio ikaragarri altu horiek jaisteko modurik errazena konputagailuek gorde beharreko datuak murriztean zetzan. Eta horretaz aparte, zenbat eta datu gutxiago erabili, orduan eta abiadura handiagoa lor zezaketenez, digitu-murrizketarekin aurrera egin zuten. Aipatu garai hartan datuak zuloz jositako txartletan gordetzen ziren, txartel bakoitzak 80 karaktere edukitzeko lekua zuelarik. Eta egia esan, 80 karaktere oso gutxi dira edozer idazteko. Data bat idazteko orduan, beraz, "1953ko abuztuak 23" jarri beharrean (18 karaktere), edo "1953/08/23" idatzi ordez (10 karaktere), "530823" idaztea erabaki zuten (6 karaktere),

Oso ondo. Arazoa hori besterik ez bada, zergatik ez gehitu "19" zenbaki magikoa programa informatiko guztietako datetan? Erraza dirudi. Okerreko datak dauden kodea hartu, programatzaile bati eman eta berak gehituko ditu falta diren bi digituak. Zoritzarrez, kontua oso bestelakoa da.

Hori aurrera eramatea ez da bate-re erraza, inork ere ez dakielako datak non dauden. Programatzaile bakoitzak era ezberdinean ezkutatutako digitu horiek. Batek *date* hitza erabili zuen bitartean, beste batek *day* aukeratuko zuen,

guztiak irakurri beharko lirateke datak aurkitzeko eta aldatzeko. Lerro bakoitzean segundo bakar bat emanez gero eta egunean 8 ordu zeregin horretan bakarrik lan eginez gero, pertsona batek 13 urte beharko lituzke enpresa horretako arazoa konpontzeko, gutxi gora-behera. Edo 13 pertsona urtebetean. Eta zeinek gastatu behar du dirutza hori? Enpresa gehienek ez. Gaur egun Estatu Batuetako enpresen % 40a bakarrik hasi da arazoari aurre egiten, eta European are okerrago gabilta. Eta beste proiektuetan gertatzen

ez den bezala, 2000. urtea ez da atzeratuko; ezin da. 120 aste baino gutxiago gertatzen dira, besterik ez. Eta kontua hori da. Egin beharrekoa zein den bada-kigu, baina orain, mende berriaren atarian, konponbidea oso zaila da, oso garestia, eta aditu askoren ustez, ez dago denborarik programa guztiak berrikusteko eta berridazteko. Beranduegi da, tamalez.

Artikulu hau irakurri duzun bitartean, 2000. urtea pixka bat gehiago hurbildu zaigu, minutu batzuk behintzat igaro dira. Geroz eta denbora gutxiago gertatzen da. Dena dela, kaos informatikoan erori baino lehen, gaiari buruzko infor-



2000. urteko apokalipsi informatikoari aurre hartzeko egin beharrekoa zein den badakigu, baina orain, konponbidea oso zaila da, oso garestia eta, aditu askoren ustez, ez dago denborarik.